# Bizkaiko Dantzak eta Dantzariak

# Danzas Tradicionales de Bizkaia




**Erakusketa** Martxoa 21 Marzo **2013** Ekaina 23 Junio **Exposición**

# BIZKAIKO DANTZAK ETA DANTZARIAK



© Euskal Museoa - Bilbao - Museo Vasco

Bizkaian, dantza eta musika bertako biztanleen eguneroko bizitzaren parte dira, bai jai eta jolas giroko adierazpen gisa (non Herri osoa baita protagonista), bai zenbait efemeriderekin erlazionatutako eta horretarako aukeratuta eta prestatuta dauden dantzari batzuek egindako adierazpen formal gisa. Bertoko zein kanpoko kronista eta etnografoek nabarmendu dute bizkaitarrak, gainerako euskal herritarrak bezala, oso dantzazaleak direla. Batzuek diote pasioa ere sentitzen dutela dantzarekiko. Pasio hori, historian zehar, agintari zibilek eta elizako agintariek kontrolatu eta zurrundu dute, eta, kasu askotan, dantzaren jatorrizko esanahia eta sinbolismoa ere hutsaldu izan dute.

Dantza ondare bizi eta aldakorra da, dantzatzen duen komunitatearekin batera bilakatzen dena, baina, sarri askotan, dantzaren jatorriak eta bilakaera berreskuratu egin behar izan dira, ahanzturan galdu direlako. Berreskuratze-lan hori dantza-taldeek egin izan dute, bai eta kolektibo eta ikerlarien inplikazioak ere; hain zuzen ere, ikerlari horien artean dago Iñaki Irigoien, zeinaren landa-lanei, inkestei eta artxiboen gaineko ikerketei esker, gaur egun Bizkai osoan ikus ditzakegun dantza ugari berreskuratu edo birsortu ahal izan baitira.

Erakusketa multzo handi bitan dago bananduta, eta multzo horietako batek Museoko aretoetako bat hartzen du.

I. aretoa **Herri dantzari** dago eskainita, eta, bertan, *soka-dantzaren* modalitate guztiak ikus daitezke (emakumeek dantzatutakoak, esate baterako Garaiko *Andrazkoen soka-dantza* edo Lekeitioko *Eguzki-dantza*, eta Gernikako inauteri-giroko *Marrauen soka-dantza*), bai eta jota eta porrusalda motako dantza solteak eta itsu-korroak, edo guztiz dantza protokolarioak ere; esate baterako, azken horien artean, Begoñako *Uriko soka-dantza* edo Durango eta Busturiako Merindadeetako *Erregelak* daude. Espazio honetan anaitasunezko lan edo otorduen amaieran egiten diren dantzak ere sartu dira; adibidez, *Txakolin dantza* edo *Mahai gainekoak*.

II. aretoak **omenezko edo errituzko dantzen** alderdi formal eta itxia jasotzen du, horretarako aukeratutako eta prestatutako dantzari batzuen eskutik. Dantza hauek Bizkaiko herrietako jaietako ekitaldi nagusietako bat dira, eta, erakusketa honetan, ikusgai daude Lekeitioko



© Txelu Angoitia



© Felipe Amutxastegi



© B.D.B.



I. Ojanguren. G.F.A.- D.F.G.
Gipuzkoako Artxibo Orokorra - Archivo General de Gipuzkoa.

*Kaixarranka,* Durangaldeko *Dantzari-dantza,* Arrastariako Juntako *Entradillak,* Lanestosako *Danza de Varas,* Xemeingo *Ezpata-dantza,* Elorrioko *Errebonbilloak eta* Markina-Xemeingo *Saragi-dantza.*

Erakusketa honekin, Bilboko Euskal Museoak eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak Bizkaiko dantzen aberastasuna eta ugaritasuna erakutsi nahi dute, jaian, dantzetan eta musikaren erritmoetan parte hartzen duten figuren eta segizioen bitartez eta dantzariek eramaten dituzten eta identifikagarri bihurtzen dituzten jantzien eta eszenografien bitartez; eta hori guztiori, gure Lurralde Historikoko errituzko dantzen eta dantza sozialen gaineko ahalik eta ikuspegirik zabalena eskaini nahian.

# Danzas Tradicionales de Bizkaia

En Bizkaia la danza y la música son parte de la vida cotidiana de sus habitantes, bien como manifestación festivo-lúdica en la que el Pueblo en su conjunto es el protagonista, bien como expresión formal relacionada con determinadas efemérides y protagonizada por un grupo de danzantes seleccionados y preparados para ello. Cronistas y etnógrafos locales y foráneos han subrayado la gran afición de sus gentes, al igual que la del resto de los vascos, por la danza. Algunos incluso hablan de auténtica pasión. Una pasión que, a lo largo de la historia, ha sido controlada y encorsetada





© B.D.B.

© S. Yaniz



© Iñaki Irigoien

por la autoridad civil y eclesial desvirtuando, en muchos casos, el significado y simbolismo originario.

La danza constituye un patrimonio vivo y cambiante, que evoluciona con la comunidad que lo baila, pero cuyos orígenes y evolución ha tenido que ser, en muchos casos, recuperada por haber caído en el olvido. Una recuperación llevada a cabo por los grupos de danzas así como por la implicación de colectivos e investigadores, como Iñaki Irigoien, cuyos trabajos de campo, encuestas e investigación de archivos han posibilitado la recuperación o regeneración de un importante número de danzas que hoy podemos disfrutar a lo largo de todo el territorio de Bizkaia.

La exposición está dividida en dos grandes grupos ocupando cada una de ellos una de las salas del Museo.

La Sala I, dedicada a la **danza social,** aglutina los bailes de cuerda o *soka-dantza* en sus diversas modalidades, desde los bailados por mujeres como *Andrazkoen Soka Dantza* de Garai o *Eguzki Dantza* de Lekeitio, pasando por las carnavalescas *Marrauen soka dantza* de Gernika; los bailes al suelto a base de jotas y *porrusaldas* y los corros de ciego, a las muy protocolarias como la *Uriko soka dantza* de Begoña o las *Erregelak* de las Merindades de Durango y Busturia. Se incluyen también en esta espacio, los bailes que tienen lugar al termino de ciertos trabajos o comidas de hermandad como el *Txakoli dantza* o el *Mahai gaineko.*

La Sala II acoge la vertiente formal y cerrada de las **danzas de homenaje o ritual**, realizadas por un grupo de danzantes seleccionados y preparados para ello. Estas danzas constituyen uno de los actos principales de las fiestas patronales de Bizkaia, y están aquí representadas por la *Kaixarranka de Lekeitio, Dantzari Dantza del Duranguesado, Entradillas de la Junta de Arrastaria, Danza de Varas de Lanestosa, Ezpata dantza de Xemein, Errebonbilloak de Elorrio y el Saragi Dantza de Markina-Xemein.*

El Museo Vasco de Bilbao y Bizkaiko Dantzarien Biltzarra desean con esta exposición mostrar la riqueza y variedad de la Danza en Bizkaia a través de las figuras y cortejos que toman parte en la fiesta, los bailes y sus ritmos musicales así como la indumentaria y escenografía que los envuelve e identifica, ofreciendo una visión lo más amplia posible de las danzas rituales y sociales de nuestro Territorio Histórico.



© Iñaki Irigoien

# Dantza Ekitaldiak

Apirila eta ekaina bitartean, hilabete bakoitzeko larunbat batean, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak goizeko hiru emanaldi antolatuko ditu Bilboko Plaza Barrian, Bizkaiko zenbait dantza-talderen eskutik. Dantza-taldeak Euskal Museotik irtengo dira, Unamuno plazatik.

**2013ko apirilaren 20an, 13:00etan**

**DURANGALDEKO DANTZAK**
Abadiñoko Talde Batuak, Mañariako Dantza Taldea, Garaiko Dantza Taldea, Iurretako Mikel Deuna, Izurtzako Mendi Gain eta Berrizko San Lorentzo eta Iremiñe Dantza Taldeak.

**2013ko maiatzaren 11n, 13:00etan**

**LEA-ARTIBAI ESKUALDEKO DANTZAK**
Lekeitioko Etorkizuna eta Markina-Xemeingo Zerutxu dantza-taldeak.

**2013ko ekainaren 1ean, 13:00etan**

**BIZKAIKO BESTE ZENBAIT DANTZA**
Santurtziko Mendi Alde, Los Danzantes de Lanestosa, Basurtuko Beti Jai Alai eta Durangoko Kriskitin dantza-taldeak.

# Actuaciones de Danzas

Bizkaiko Dantzarien Biltzarra organizará durante un sábado de cada mes, entre abril y junio, tres actuaciones matinales con grupos de danzas de Bizkaia en la Plaza Nueva de Bilbao. La salida de los grupos de danzas se efectuará desde el Museo Vasco en la Plaza Unamuno.

**20 de Abril del 2013, a las 13 horas**

**DANZAS DEL DURANGUESADO**
Grupos de danzas Talde Batuak de Abadiño, San Lorentzo de Berriz, Iremiñe de Berriz, Garaiko Dantza Taldea, Mikel Deuna de Iurreta, Mendi Gain de Izurtza y Mañariko Dantza Taldea.

**11 de Mayo del 2013, a las 13 horas**

**DANZAS DE LA COMARCA DE LEA-ARTIBAI**
Grupos de danzas Etorkizuna de Lekeitio y Zerutxu de Markina-Xemein.

**01 de Junio del 2013, a las 13 horas**

**DANZAS DE BIZKAIA**
Grupos de danzas Mendi Alde de Santurtzi, Los Danzantes de Lanestosa, Beti Jai Alai de Basurto y el Kriskitin de Durango.

EUSKAL MUSEOA · BILBAO · MUSEO VASCO
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 BILBAO
Telf. +34-94-415 54 23 - Fax +34-94-479 06 08
http://euskal-museoa.org - museoa@euskal-museoa.org




## Ikusleentzako Orduak

MUSEOA

Asteartetik Larunbatetara
Goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 19,00tararte

Igandea
Goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 14,00tararte

## Horarios de Visita

**MUSEO**

**De Martes a Sábado**
de 11,00 a 19,00 horas

**Domingo**
de 11,00 a 14,00 horas

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO